

## Ramiro Gonzálezek Foru Gobernuaren programa eta osaera aurkeztu ditu

Cristina Gonzálezek eta José Antonio Susok nabarmendu dutenez, programa akordioak oinarriak ezarriko ditu “hazkunde ekonomikorako, kalitatezko enplegua sortzeko eta gizarte kohesiorako”

EAJk 6 gobernu arlo kudeatuko ditu, eta PSE-EE 3 sailen buru izango da

**Gasteiz, 2019ko uztailaren 5a.** Ramiro González Arabako diputatu nagusiak Foru Gobernuaren datozen lau urteetarako programaren oinarriak aurkeztu ditu gaur, eta helburu nagusizat aipatu ditu hazkunde ekonomiko iraunkorra lortzea kalitatezko enpleguarekin batera, gizarte kohesioa eta Araba lurralde ‘bizia’ izatea. Halaber, iragarri du gobernu parekidea izango dela, eta EAJk 6 sail kudeatuko ditu, eta PSE-EEK 3 arloren ardura izango du.

José Antonio Suso EAJren Araba Buru Batzarraren lehendakaria eta Cristina González PSE-EEren Arabako idazkari orokorra ere izan dira aurkezpenean, bi talde politikoek izenpetutako programa akordioaren ardatzen berri emateko. Nabarmendu dutenez, akordio horrek egonkortasun politiko eta instituzionala bermatzen du, lehen aipatutako erronkei aurre egiteko behar diren politika publikoak garatzeko.

Susoren hitzetan, lortutako akordioaren “oinarria da iragan legegintzaldian gobernuak egindako lan onak utzitako esperientzia positiboa, zeinak aurrerapen ekonomikoa eta gizarte kohesioa ekarri baitzizkion Arabari. Beste legegintzaldi bati ekingo diogu, jakitun izanik Arabako gizartea politikoki askotarikoa dela eta, beraz, bi alderdion konpromisoa eta asmoa da desberdinen arteko elkarriketaren, negoziazioaren eta akordioen alde egitea”.

EAJren Arabako presidentek esan duenez, bi alderdiek akordio hori sinatu dute “erantzukizun eta zerbitzu publikoaren zentzu osoarekin, eta baita Arabaren

*etorkizuna eraikitzen laguntzeko ilusioz eta erabakitasunez ere*”, eta azpimarratu du Arabako lurraldearen etorkizuneko erronkei aurre egiteko ekimenak aurreikusi dituztela, hiru multzotan sailkatuta.

*“Ekintza zehatzak aurreikusi ditugu, garapen eta hazkunde ekonomiko iraunkorra lortzeko, kalitatezko enpleguarekin batera; kalitatezko gizarte politiken bitartez gizarte kohesioa bermatuko duen giza garapena gauzatzeko, arreta berezia jarritz zahartzaroan; eta Araba ‘lurralde bizia’ izan dadin saiatzeko, Araban bizi diren pertsona guztiei zerbitzu berdinak eskainiz*”, adierazi du.

Bestalde, Cristina González PSE-EEren Arabako idazkari nagusia pozik agertu da akordioa lortu dutelako. Akordio horren oinarritzko printzipioa *“arabarren interes orokorra”* da. *“Akordio honek oinarriak ezarriko ditu datozen lau urteetan hazkunde ekonomiko eta soziala, berdintasuna, bizikidetzeta eta kalitatezko zerbitzu publikoak sustatuko dituzten politikak garatzeko”*.

*“PSE-EE eta EAJ bi alderdi desberdin gara, baina akordio honen bitartez lehenatasuna ematen diegu erakundeen funtzionamenduari eta prestigioari, haien egonkortasunari eta interes komunari. Iragan legegintzaldian hala egin genuen, eta jarraipena emango diogu orain*”, erantsi du.

Cristina Gonzálezek azaldu duenez, akordioan zehaztu den programa politikoak oinarri ditu *“gizarte kohesioa eta berdintasuna; kudeaketa publikoaren eraginkortasuna, gardentasuna eta parte hartzea; Gobernuaren eta hango kargu publikodunen jardunean exigentzia gorena eta zintzotasuna; lehiakortasuna, nazioartekotzea eta garapen ekonomiko eta soziala, berrikuntzaren inguruan; eta gizartearekiko lankidetzeta eta gertutasuna”*.

Jarraian, diputatu nagusiak hartu du hitza, eta adierazi du Foru Gobernu berriak *“erronka berriak”* hartuko dituela bere gain, eta gobernuko kide izango diren pertsonak *“prestakuntza ezin hobea dutela lurraldearen gidari izateko eta Arabak datozen lau urteetan izango dituen erronka berri horiei heltzeko”*.

Datorren Foru Gobernuak osaera paritarioa izango duela iragarri du; bost emakume eta bost gizon izango dira, eta EAJko 6 diputatuk eta PSE-EEko 3 diputatuk osatuko dute.

## Ramiro González Vicente

Burgos, 1962

### **Kargua**

---

Arabako Diputatu Nagusia

### **Ikasketak**

---

Zuzenbideko lizentziaduna, Euskal Herriko Unibertsitatean.

### **Ibilbide profesionala**

---

Abokatuen Elkargoko kide duela 28 urte baino gehiago, zuzenbide zibilean eta merkataritza zuzenbidean espezializatua

Hainbat kargu izan ditu Gasteizko Udalaren sozietate publikoetan

Arabako Biltzar Nagusietako kide, 2007-2011 eta 2011-2015 legegintzaldietan

Biltzar Nagusietako EAJ taldearen bozeramaile 2011-2015 legegintzaldian

Arabako Diputatu Nagusia (2015-2019)

## **M<sup>a</sup> Pilar García de Salazar Olano**

Vitoria-Gasteiz, 1959

### **Kargua**

---

Arabako Lehen Diputatu Nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntza eta Demografia Erronka Saileko Foru diputatua

### **Ikasketak**

---

Zuzenbideko lizentziaduna (Deustuko Unibertsitatea).

“Eusko Ikasketetan espezialista” diplomatura. EHUK eta Eusko Ikaskuntzak antolatutako graduondoko ikastaroa (1998-1999). Diplomatura eskuratzeko ikerketa lana “Autonomia erkidegoen kanpo ekintzaren” ingurukoa izan zen.

Graduondoko ikasketak INSIDE (Deustu) institutuan 2006-2007 aldian, zuzendaritzarako gaitasunen inguruan (ikasgaiak: motibazioa; goi mailako jarduneko taldeak; analisi transakzionala; lidergoa, negoziazio eta gatazkak konpontzea; aldaketak kudeatzea; sormena eta berrikuntza; ondare emozionala kudeatzea; berrikuntzarako erakundeak).

### **Ibilbide profesionala**

---

Kontabilitateko laguntzailea Gasteizko Apellaniz, S.A. enpresan (1977-1980)

Hainbat lan Eusko Jaurlaritzan: Eusko Jaurlaritzaren Harreman Publikoetako eta Protokoloko burua eta Lehendakariaren Idazkaritza Partikularreko burua (1980-2001)

Euskalteleko Lehendakariaren Kabinetearen koordinatzaile eta zuzendaria (2001-2013).

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko aholkularia (2013-2015)

Arabako Biltzar Nagusietako biltzarkidea (2007-2011, 2011-2015 eta 2015ean gaur arte)

Arabako diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko diputatua 2015-2019

## Cristina González Calvar

Vitoria-Gasteiz, 1969

### Kargua

---

Arabako Bigarren Diputatu Nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Foru Diputatua

### Ikasketak

---

Zientzia Politikotako eta Soziologiako lizentziaduna.  
Europar Batasuneko eta Ekialdeko Europako Ikasketa Aurreratuetako diplomaduna

### Ibilbide profesionala

---

Irakasle tutorea Gasteizko zentro bazkidetuko UNEDn (1993-gaur egun)

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua (2015-2019).

Arabako PSE-EEko idazkari nagusia (2014-gaur egun)

Arabako Batzar Nagusietako Sozialisten Taldeko bozeramailea (2011-2015)

Eusko legebiltzarkidea (2009-2012)

Arabako Batzar Nagusietako aholkularia (1999-2009)

PSOEn Batzorde Federaleko kidea

## Itziar Gonzalo de Zuazo

Vitoria-Gasteiz, 1967

### **Kargua**

---

Arabako Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua

### **Ikasketak**

---

Zuzenbideako lizentziaduna. Euskal Herriko Unibertsitatean.

### **Ibilbide profesionala**

---

Añanako Kuadrillako kudeatzaile eta legelaria 1992-1997 eta 2011-2015

Araba Garapen Agentziako -Arabako Foru Aldundiaren sozietate publikoa- zuzendari kudeatzailea 2007-2011

Gasteizko Udalean Ekonomiaren eta Udal Administrazioaren Arloko zuzendari nagusia 2015-2016

2. Alkateordea. Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkaria. Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria. TUVISA udal sozietatearen lehendakaria eta Gasteizko Udalean Ekonomiaren eta Udal Administrazioaren Arloko zuzendari nagusia. 2016-2019

## Irma Basterra Ugarriza

Bilbao, 1972

### Kargua

---

Arabako Lurralde Oreka Saileko Foru Diputatua

### Ikasketak

---

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna (EHU, Sarriko). Adarra: Enpresa. Espezialitatea: komertziala

### Ibilbide profesionala

---

Product Manager. Institutu Teknologikoa eta Negozioetakoa, ITB. (Prestakuntza, Aholkularitza eta Banka (BANKINTER Agenteen Sarea). (-1999)

Proiektu burua. C.P.S. Merkatu azterketak eta Iritzikoak. (Merkatuko Azterketen eta Iritzikoen enpresa Euskal Herrian, Nafarroan, Santanderren eta Errioxan). (- 2001)

Erosketetako eta Fabrikazioko Departamentuko zuzendari 2001-2003

Komunikazio eta Customer Serviceko Lineen Departamentuko zuzendaria. 2003 –2007 PandaSoftware Internacional (segurtasun soluzio integratuen garapenean eta horniketean liderra den multinazionala).

Gerentea. Zabaia landa garapeneko elkarte, (Eskualde kantauriar- arabarra- Aiara). 2007 – 2016

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria (Eusko Jaurtitzia) 2016-2019

## Javier Hurtado Domínguez

Madrid, 1981

### Kargua

---

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko Foru Diputatua

### Ikasketak

---

Zuzenbidean eta Politika eta Administrazio Zientzietan lizentziaduna. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa

Sciences-Po Nazioarteko Programa. Parisko Ikasketa Politikoetako Institutua 'Praxedes Ochoa' Praktika Juridikoko Eskola. Arabako Abokatuen Elkargo Ohoretsua.

### Ibilbide profesionala

---

Abokatu norberaren kontura. Arabako Abokatuen Elkargo Ohoretsuko kidea (2013-2019).

IUSLAB bulegoaren kanpo kolaboratzailea, abokatu eta aholkulari gisa. Estudio Legal (2016-2019)

Sustapen Ministerioaren Kabinetearen zuzendari nagusia. Espainiako Gobernua (2009-2011)

Estatuko Portuak erakunde publikoaren Kontseilu Artezkari kidea (2009-2011)

ADIFen Administrazio Kontseiluko kidea (2009-2011)

PSOEren Batzorde Exekutibo Federalaren Antolakuntza Idazkaritzaren koordinatzailea (2007-2009 eta 2012)



## Emilio Sola Ballojera

Bilbao, 1959

### Kargua

---

Gizarte Politiken Saileko Foru Diputatua

### Ikasketak

---

Medikuntzan eta Kirurgia orokorrean Lizentziatua. (UPV) (1976ko urritik 1982ko ekainera arte).

### Ibilbide profesionala

---

Osasun mental eta drogomenpekotasuneko medikua. (Osakidetza) 1984-1986

Osasun arloko eta arlo soziosanitarioko proiektu estatistikoaren teknikaria. (EUSTAT) (1986-1987).

Gizarte Ongizateko teknikaria Arloko arduraduna (Eusko Jaurlaritzak) 1988-2012

Gizarte Zerbitzuetako arduradun-teknikari (Eusko Jaurlaritzak) 2012-2013

Gizarte Politiketako aholkularia. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (Eusko Jaurlaritzak) (2013-2015).

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaria. Enplegu eta Gizarte Politikak (Eusko Jaurlaritzak) (2016-2019)

## **Eduardo Aguinaco López de Suso**

Vitoria-Gasteiz, 1963

### **Kargua**

---

Nekazaritza Saileko Foru Diputatua

### **Ikasketak**

---

Zuzenbideko lizentziaduna (Deustuko Unibertsitatea)

MBA Executive masterduna (Negozio eta Teknologien Goi-eskola)

Pertsonen zuzendaritza eta lan taldeen burutza (Urcola, Formación & Consultoría)

Politika publikoen ebaluazioa (Sociedad Vasca de Evaluación)

### **Ibilbide profesionala**

---

Vital Kutxako administraria (1990-1991) Mercedes Benz Españaiko behargina (1991)

Mutua General de Seguros enpresako aseguru ikuskatzailea (1991-1994)

UAGA-Arabako Nekazari eta Abeltzain Elkarteko idazkari nagusia (1994-2003)

Ovo12 SL korporazioko kudeatzailea (2003-2008)

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza zuzendaria (2008-2009)

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza zuzendaria (2010–2011)

Cárnicas Sáenz SL enpresako ekoizpen zuzendaria (2012-2013)

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza zuzendaria (2013-2015)

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko diputatua 2015-2019

## Josean Galera Carrillo

Vitoria-Gasteiz, 1959

### Kargua

---

Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputatua

### Ikasketak

---

Industria ingeniari teknikoa eta ingurumen ingeniaria EHUtik.

### Ibilbide profesionala

---

Gasteizko Udaleko Ingurumen Saileko karrerako funtzionarioa (1984-1991)

Ekonomia eta Ogasun Ministerioko langilea (1982-1984)

Ingurumen ingeniaritza eta aholkularitza enpresen zuzendaria (1991-2013): Inguru Ingeniería y Gestión Ambiental, Sarea 21, Grupo de Consultores BETEAN, Grupo CONFLUENTIA

Administrazio Kontseiluko kidea (1991-2013): ATE Informática, DHV España, Inguru Ingeniería y Gestión Ambiental, Sarea 21, Grupo de Consultores BETEAN, Grupo CONFLUENTIA. LEIA Centro de Desarrollo Tecnológico (gaur egun TECNALIA) patronatuko kidea (1996-2000). Cluster de Industrias del Medio Ambiente de Euskadi – ACLIMAKo zuzendaritza batzordeko kidea (2005- 2012)

Eusko Jaurlaritza (2013-2015): Ingurumen sailburuordea, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko lehendakaria, IHOBE Ingurumen Kudeaketako Sozietate Publikoko lehendakaria, URA Uraren Euskal Agentziako lehendakariordea, SPRILURko Administrazio Kontseiluko kidea

Arabako Foru Aldudiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua (2015-2019)

## Ana del Val Sancho

Vitoria-Gasteiz, 1960

### Kargua

---

Kultura eta Kirol Saileko Foru Diputatua

### Ikasketak

---

Erdi Mailako Lanbide Heziketako ikasketak

Kalitate, lidergo eta administrazio publikoen arloetako prestakuntza ziurtatuko ikastaroak

### Ibilbide profesionala eta politikoa

---

Arabako Foru Aldundiko Zerbitzu Orokorren zuzendaria (2016-2019)

Arabako Kalkuluguneko (AKGSA) kontseilari eskuordea (2016-2019)

IZENPEko, Arabako Foru Elkarkidegoko eta Arabat-eko administrazio kontseiluetako kidea (2016-2019)

Gasteizko Udalaren San Martineko bulegoetako zerbitzu teknikoak zentralizatzeko arduraduna. Eraikinaren koordinatzailea (2015-2016)

Gasteizko Udaleko Ogasun, Ondare eta Aurrekontu Saileko Zergadunentzako Informazio eta Arreta Zerbitzuen Administrazioarekin burua, ISO 9001 egiaztagiriaren eta AENORen zerbitzu kartaren aintzatespenarekin (2006-2015).

Adinekoei laguntzeko San Prudentzio zentro integralaren zuzendaria (2002-2006)

Aurora egoitzaren eta Aurora babespeko apartamentuen burua (1986-2002)

Gasteizko Udaleko karrerako funtzionarioa (1978-2016)

PSE-EEko Batzorde Exekutiboko kidea